

Euskararen eguna Okondon. Azaroak 30

PIZTU EUSKARA!

Hori da aurtengo gure leloa, eta hori da gaur hona ekarri gaituena

PIZTU EUSKARA ez soilik gaurko ospakizun honetan, egunero, gure egunerokoan, euskararen distira bizirik eta distiratsu ikusi nahi dugu.

Piztu gogoa.

Piztu energia.

Piztu konpromisoa.

Piztu herria.

Ospakizun eguna da, bai, baina ospakizun honek berekin dakar ardura bat ere bai: euskara bizirik mantentzea. Denon artean hartu behar ditugu konpromiso txikiak eta urrats txikiak eman, gerora euskara gure bidean argia, norabidea eta indarra bihurtzeko. Urrats horiek dira hizkuntza bat bizirik mantentzen duten txinpartak.

Okondotik Etxaurrenara eta Etxaurrenetik mundura goazen ikasleon ahotsak, ikasleon indarra, ikasleon gogoak eta konpromisoak bat egitera euskararen alde eta euskaraz behar duen argia ematera. Euskaraz bizi nahi dugu, eta horregatik, bihur gaitezen elkarrekin etengabeko argia ematen duen Euskararen bonbila. Ez dadila inoiz itzali!

Beraz...PIZTU EUSKARA, EUSKARAKTIBATU! EUSKARAZ BIZI!